

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntzak 600 plaza eskainiko ditu neguko oporraldian ingelesean murgiltzeko Winter Time & Friends programari esker

*Izen-ematea, abenduaren 15a edo plazak bete arte, dago zabalik*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 28

Hezkuntza Departamentuak, CNAIren bidez, sustatzen du murgiltze programa Haur, Lehen eta DBHko 1. Zikloko ikasleei zuzenduta, Altsasu, Barañain, Lizarra, Iruñea, Gares, Sarriguren, Tafalla, Tuter, Mendabia eta Elizondon, abenduaren 26tik 28ra bitartean, 9tatik 14tara. Izen-ematea abenduaren 15era bitartean dago zabalik, edo plazak bete arte, [www.cnai.es](http://www.cnai.es) helbidean edo CNAIren bulegoetan (Konpañia kalea, 6 behe; Hizkuntza eskola ofizialaren eraikinean) . Prezioa 45 eurokoa da eta familia ugariak beherapena izanen dute.

Iaz izandako harrera ona ikusita, Departamentuak DBHko 1. Eta 2. Mailak gehitu ditu programa-hartzaileen artean eta Mendabia eta Barañainen ere eskainiko da 'Winter Time & Friends' programa.

Ahozko eta idatzizko trebetasuna lantzeko programa da 'Winter Time & Friends', beti ere ikastetxeko ikasketa-prozesuen osagarri, Nafarroako ikasleen artean ingelesez jarduteko ohitura sustatzeko. Era berean, autonomia, sormena, lantaldea eta errespetu lantzeko ere balio du programak eta, nola ez, ohitura anglosaxoietara gerturatzeko aukera eskainiz ikasleei, kultura artekotasuna sustatuz.

'Winter Time & Friends' tailerrak ikasketa interaktiboan oinarritzen dira eta eskaintzen diren maila bakoitzari egokitzen dira. Hala, hainbat gaien inguruan antolatu dira tailerrak eta pertsonai fantastiko batek gidatuko ditu esku-lan, jolas, dantza, antzerki eta kirol-saioetan parte har dezaten.

'Winter Time & Friends' Haur hezkuntzako 2. Eta 3. Maila, Lehen Hezkuntzako 1-6 maila arteko eta DBHko 1-2 maila bitarteko ikasleei zuzenduta dago eta eurei egokituta. Ikastetxe hauetan garatu da:

- Altsasu: Zelandi ikastetxe publikoa
- Barañain: Eulza ikastetxe publikoa
- Lizarra: Ikastola Lizarra
- Iruñea: Basoko institutua
- Gares: Puente la Reina ikastetxe publikoa
- Sarriguren: Hermanas Uriz Pi ikastetxe publikoa
- Tafalla: Sancho El Mayor institutua
- Tuter: Monte San Julián ikastetxe publikoa

- Mendabia: San Francisco Javier ikastetxe publikoa
- Elizondo: Elizondo ikastetxe publikoa

Informazio gehiago nahi izatera [www.cnai.es/winter-time](http://www.cnai.es/winter-time) webgunera jo daiteke edo informazioa eskatu [info@cnai.es](mailto:info@cnai.es) edo 948.20.73.43 telefono bidez.